



## 1934. urteko Aratostiak

Lehenaoko Aratostiak ez eben emoten ez, gaur egunekuen buruhaustia.

Etxeko ganbaran edo armarixoren baten topautako edozein txapiño ta traste zahar ipiñi ta kalera urtetzia izaten zan gauziori, edozelan! Erropia erropian gaiñian jantzi, anaien prakei barrena hartu, amari soiñekoren bat ohostu, bururako txapelen bat jirau ta arpeixia kurtiña txatalekin tapau edo edozelan pintxau ta listo!.

Kapitaletan endemas, arpegi tapau hori kontrari-xuak hiltzeko aprobetxautako kasu asko egon zianez, gerra ostian proibidu eiñ zian aratustiok. Luzaruan ezin izan zian ospatu.

Erretratua urtiak berandauago Olgita Olañotak kioskua euki eban eliza kanpoko hegalian etarata dao.

Danen atzian Anastasio Olañeta. Tente, ezkerretik eskumara, Teres Agirregomezkorta, Enrique Urriolabeitia, Fernando Ibaibarriaga, Balbino Ganboa, Juanito Urreta, Pablo Agirregomezkorta, Eusebio Ibaibarriaga, Juan Izarra "Mahatza", Jaime Intxaurrendieta, Manuel Olañeta, Pedro Bilbao ta Jesus Izarra.

Makurtuta, ezkerretik eskumara, Agapito Zabala, Jose Ormaetxea ta Jose Izagirre.

Banketa banan igonda, txakur bi.